



LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAK 2024KO AZAROAREN 12AN EGINDAKO BILERAREN AKTA

Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteiz) egin da Kontseilu Errektorearen bilera, 2024ko azaroaren 12an, 09:00etan hasita. Pertsona hauek parte hartu dute:

- Ander Caballero Berturen jauna, eLankidetzaz-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren (aurrerantzean, eLankidetzaz) eta haren Kontseilu Errektorearen presidentea.
- Batzordekidea: Asier Aranbarri Urcelai jauna, Berrikuntza Sozialeko zuzendaria.
- Batzordekidea: Olatz Bolinaga andrea, Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorrerako zuzendaria; Miren Lorea Bilbao andrearen, hau da, Administrazio eta Finantzaketa sailburuordearen, orde. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Iván Bolinaga Salazar jauna, Programa eta Azterlanerako aholkularia; Enrique Corchón Alvarez jaunaren, hau da, Finantza eta Aurrekontuen sailburuordearen, orde.
- Batzordekidea: Raúl Pérez Iracheta jauna, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Josu Urrutia Beristain jauna, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen partetik. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Nerea Uriarte Goitia andrea, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen partetik. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Elsa Fuente Do-Rosario andrea, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa, GGKE-en Koordinakundekoak ez diren beste eragile sozial batzuen aldetik. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Mikel Arruabarrena Azpitarte jauna, Maitane Ipiñazar Eusko Legebiltzarreko ordezkari andrearen orde.
- Batzordekidea: Diana Urrea Herrera, Eusko Legebiltzarreko ordezkaria. Telematikoki parte hartu du.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria.

Halaber, bileran parte hartu dute, gonbidapen bidez eta gai-zerrendako gaiak aurkeztean laguntza teknikoa emateko, Alazne Camiña Izkara andreak (eLankidetzako koordinazio teknikorako zerbitzuaren arduraduna) eta Pilar Díez Aguirre andreak (Ekintza Humanitariorako lankidetzatza-teknikaria).

Sarrera

Ander Caballerok hartu du hitza, presidente gisa parte hartzen duen lehenengo Kontseilu Errektorean. Ongietorria egin die bertaratu diren pertsonei, eta etorri izana eskertu die. Egungo egoeran lankidetzak duen balioa azaldu du, eta euskal lankidetzatza mundu osora zabaltzeko borondatea duela esan du.

eLankidetzako eta Kontseilu Errektoreko presidente den heinean, laguntza eskaini die Kontseiluko kide guztiei.

Jarraian, saioa hasi da. Hona hemen gai-zerrenda:

1. 2024ko urriaren 10ean egindako azken saioko akta irakurri eta onartzea
2. 2024ko hitzarmenen eta zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea
3. Ekintza humanitarioko 2024ko proiektuetarako laguntzak emateari buruzko informazioa
4. 2024ko garapenerako lankidetzarako beken esleipendunen gaineko informazioa.
5. 2024ko Ignacio Ellacuría Sariaren deialdiaren gaineko informazioa
6. Eskariak eta galderak

1. Aurreko saioko akta irakurri eta onartzea.

Bileran parte hartu duten pertsonek ez dute inolako oharrik egin; hortaz, 2024ko urriaren 10eko saioko akta onartu da, bertaratutako pertsona guztien aldeko botoarekin.

2. 2024ko hitzarmenen eta zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea

Presidenteak Paul Ortigari pasatu dio hitza, eta hark xehetasunez azaldu ditu zuzeneko dirulaguntzen proposamen hauek. Aurrez, posta elektronikoz bidali dizkie proposamenak kideei:

-Nazio Batuetako Koordinazio Humanitarioko Bulegoaren Funts Komun Nazionala-Sudani.

- Just Associates INC. erakundeari, testuinguru oldarkorretan mugimendu feministak indartzeko eta eskubideak babesteko.

-Egoaizia Elkarteari, Mekelleko Unibertsitatean (Tigray) azterlan humanitarioen zentro bat sortzeko.

-Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna Elkarteari eta Euleuk Elkarteari, "Emakumeen elkarreak, komunitateak eta tokiko erakunde publikoak, Malicoundako (Senegal) hondakinen kudeaketa jasangarrirako aldaketaren eragile gisa" proiektua finantzatzeko. Senegalen azken proiektu hori garatzeko lhoberekin batera egiten ari diren lana nabarmentzen da.

Azalpenaren ostean, bozkatu egin dute eta aho batez onartu da.

3. Ekintza humanitarioko 2024ko proiektuetarako laguntzak emateari buruzko informazioa

Ander Caballerok azaldu duenez, 2024ko ekintza humanitarioko proiektuen deialdia, araudiarekin bat etorriz, informatzeko bakarrik pasatzen da Kontseilu Errektoretik, eta ez du onarpenik behar. Eta Pilar Diezi eman dio hitza, hark azal dezan.

Pilar Díezek esan duenez, deialdi hau martxoaz geroztik dago irekita, funtsak amaitu arte. Hasierako aurrekontua 5.600.000 eurokoa zen, eta 5.708.803,95 eurora igo da, Ekintza Humanitarioko Estrategien deialdietako, garapenerako lankidetzaproiektuen laguntzetako eta genero-berdintasunaren aldeko erakundeen aldaketa-prozesuetako soberakinak batu ondoren. Horri esker, beste proiektu bat onartu ahal izan da.

Azken proiektu hori Munduko Medikuek erakundeari eman diotela azaldu du, Gazan proiektu bat martxan jartzeko, Juzoor for Health and Social Development tokiko bazkidearekin batera. Gatazkaren eraginpeko pertsonen lehen arretako zerbitzuak eta osasun mentaleko zerbitzuak ematea da proiektuaren helburua. Horretarako, puntu mediko bat jarriko dute desplazatutako pertsonen babesleku gisa funtzionatzen ari den eskola batean (sendagaiak, arreta eta prestakuntza). Ez dago aurrekonturik egitasmoaren % 100 finantzatzeko. Hortaz, erakundeak birformulatu egin beharko du proposamena eta, Gazako egoeraren bilakaera ikusita, posible da kokapena aldatzea.



Amaitzeko, aurtengo laguntzen % 60 ahaztutako krisietara bideratu direla nabarmendu du Pilarrek. Bestetik, tokiko bazkideen erdiak baino gehiago tokiko erakundeak direla azpimarratu du; horrek indartu egiten du eLankidetzaren lokalizazio-estrategia.

Azalpena amaitu duenean, Guatemalara eta Mexikora egindako bidaiaren esperientzia Kontseilu Errektoreko kideekin partekatzeko gonbita egin dio Paul Ortegak. Hala, halabeharrez migratu behar izan duten (Haititik, Venezuelatik, Erdialdeko Amerikako Triangelutik eta are Afganistandik, AEBra bidean) pertsonak artatzeko zerbitzuak ematen dituzten hainbat babeslekutara egindako bisita kontatu du Pilar Díezek.

4. 2024ko garapenerako lankidetzarako beken esleipendunen gaineko informazioa.

Ander Caballerok Alazne Camiñari pasatu dio hitza. Ebazpena urriaren 22an argitaratu zela eta 4 bekadunak dagoeneko eLankidetzan lanean ari direla azaldu du Camiñak.

22 eskaera jaso direla eta bekak arlo hauetan garatuko direla azaldu du gero: Generoa eta Garapena, Ekintza Humanitarioa, Giza Eskubideak eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza. Espezialitate bakoitzeko, bi edo hiru ordezkoko daude.

Azkenik, 2023-2024 ekitaldiko 4 bekadunetatik bik bekari uko egin ziotela aipatu du, lan-munduan txertatu zirelako; bata, Deustuko Unibertsitateko irakasle gisa, eta, bestea, El Salvadorreko proiektu bateko erreferente gisa.

Presidenteak hartu du hitza, eta poztu egin da beka hauek laneratzea eragiten dutelako, lankidetzarekin lotuta. Gero eta eskari gutxiago zergatik jasotzen diren galdetu du.

Paul Ortegak erantzun dio gazteentzat dagoen beka-eskaintza handia dela arrazoia. Alazne Camiñaren ustez, berriz, jasotako eskaera kopuruaren atzean bi arrazoi nagusi daude: batetik, beka eskatzeko gehieneko adinean ezarritako aldaketa; bestetik, gaur egun gazteen artean dagoen langabezia-tasa baxua.

10. 2024ko Ignacio Ellacuría Sariaren deialdiaren gaineko informazioa

Sariaren egungo egoera laburtu du Paul Ortegak. Bi eskari aurkeztu direla adierazi du. Sariketako epaimahaiak baimena ematen badu, beste urte batzuetako hautagaitzak berrartu litezke.



Era berean, hemendik gutxira epaimahaiarekin bilduko dela jakinarazi du, erabakiaren berri izateko. Hautaketa EHAA-n argitaratuko da laster.

11. Eskariak eta galderak


Azken puntu honetan Diana Urreak hartu du hitza, Kontseiluko presidente berriari ongietorria egiteko eta haren borondatea eskertzeko. Izan ere, ezin izan zuen aurreko saiora etorri, legegintzaldi berrian kide berriein egin zen lehenengora.

Saio horretan landutako gaiei dagokienez, sentitzen du 2025eko Lankidetzako aurrekontua gelditu egotea, eta 0,7 lortzeko akordio handia gogoratu du, denen onarpenarekin lortu zena.

Ander Caballerok eskerrak eman dizkio egindako ekarpenarengatik, eta legearekiko konpromisoa baieztatu du; hala, egungo egoera aztertu ondoren, 0,7ko ekarpena egingo dute gobernuak arlo guztiek.

Beste gairik proposatu ez denez, presidenteak eskerrak eman dizkie bertaratu direnei eta amaiera eman dio saioari, 09:50ean.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikuluko lehenengo paragrafoan aurreikusitakoa betez, jakinarazten da Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo saioan onartuko dela akta.


Oniritzia, Ander Caballero Barturen
jauna
Europar Batasuneko eta Kanpo
Harremanetarako idazkari nagusia


Paul Ortega Etcheverry
Kontseilu Errektoreko idazkaria
eLankidetzako zuzendaria

